

David Bravo

Arkitektoa. Urban front nazioarteko aholkularitza-enpresaren eta estrategiaren ardura duen diziiplina arteko ATRI.City taldearen kide sortzailea da. Estrategia horrek gentrifikazioaren aurkako etxebizitza eskuragarrien sistemak ematen dizkie hiriei. Horren baitan, gaur egun wikihousing ekimenean ari da lanean.

2015 eta 2019 artean, Bartzelonako alkatearen aholkulari izan zen, gentrifikazioaren aurkako udal estrategiaren arduradun gisa. «*Agur autoari! zen / Nola askatu Bartzelona ibilgailu pribatutik?*» zikloaren komisario izan Beckett aretoan, 2018an. 2003 eta 2015 artean, Bartzelonako kultura garaikidearen zentroarekin (CCCB) lankidetzan aritu zen hiriko espazio publikoaren Europako Saria garatzen. Sari horren edukien editorea eta epaimahaiaren idazkaria izan zen.

Espainiako Telebista Publikorako (RTVE) «Europa hiria» dokumentala zuzendu zuen (2012), Europako hiri-ereduaren indarraldiari buruzkoa, eta «Etxebizitza pilotua» (2015) erakusketaren komisarioa izan zen. Etxebizitza izateko eskubideari buruzko erakusketa hori aldi berean aurkeztu zen CCCBn eta Medellingo Antioquiako museoan (Kolonbia).

Eskolak eman ditu, besteak beste, Bartzelonako Arkitektura Eskolan (ETSAB-UPC), Kataluniako Arkitektoen Elkargoko Sert Eskolan (COAC), ELISAVA Diseinuko Goi Eskolan edo Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) etxebizitza publikoen kudeaketa eta diseinuko masterrean.

Ohiko moduan, hitzaldiak edo bisita gidatuak eskaintzen ditu eta artikuluak idazten ditu hainbat egunkari eta aldizkaritan. Testu horietako batzuetan, Bartzelonan hiri-eztabaidak irekitzea proposatzen du, besteak beste, errondak etxebizitzarekin estaltzea edo Montjuíceko azoka-esparrua auzo ireki, askotariko eta milaka etxebizitza publikoz betetzea.



David Bravo

Arquitecto. Es miembro fundador de la consultora internacional urban front y del equipo interdisciplinar responsable de la estrategia ATRI.City, que proporciona a las ciudades sistemas de vivienda asequible contra la *gentrificación*. En el marco de dicha estrategia, actualmente trabaja en la iniciativa wikihousing.

Entre 2015 y 2019, fue asesor de la alcaldesa de Barcelona como responsable de la estrategia municipal contra la gentrificación. Fue comisario del ciclo «*jadiós al coche! / ¿Cómo liberar Barcelona del vehículo privado?*», programado en la sala Beckett en 2018. Entre 2003 y 2015, colaboró con el centro de cultura contemporánea de Barcelona (CCCB) en el desarrollo del Premio Europeo del espacio público urbano, del cual fue editor de contenidos y secretario del jurado.

Dirigió para la Televisión Pública Española (RTVE) el documental «Europa ciudad» (2012), sobre la vigencia del modelo europeo de ciudad y fue comisario de la exposición «*Piso piloto*» (2015), una muestra sobre el derecho a la vivienda presentada simultáneamente en el CCCB y el museo de Antioquia de Medellín (Colombia).

Ha impartido clases, entre otros, en la Escuela de Arquitectura de Barcelona (ETSAB-UPC), en la Escuela Sert del Colegio de Arquitectos de Cataluña (COAC), en la Escuela Superior de diseño ELISAVA o en el Máster en gestión y diseño de vivienda pública de la Universidad del País Vasco (UPV-EHU).

De manera habitual, ofrece conferencias o visitas guiadas y escribe artículos en distintos periódicos y revistas. En algunos de estos textos, propone que en Barcelona se abran debates de ciudad sobre proyectos como cubrir las rondas con vivienda o convertir el recinto ferial de Montjuïc en un barrio abierto, diverso y con miles de viviendas públicas.

